

Administrazio Goi Mailako teknikarien lan poltsa

Epidemiologia Eskala

1. ariketa, zati teorikoa

A eredua

2015/02/28

1.- ADMINISTRAZIOKO XEDAPEN OROKORREN AURKA, HONAKO HAU AURKEZTUKO DUGU:

- a) Gora jotzeko errekurtoa.
- b) Berraztertzeko errekurtoa.
- c) Berrikusteko errekurto berezia.
- d) Ezin da administrazio-errekurtsorik aurkeztu.

2.- DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO 15/1999 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, "DATU PERTSONALAK" DIRA:

- a) Datuen multzo antolatu oro, edozein dela ere datu multzo hori sortzeko, biltegitratzeko, antolatzeko edo horretara iristeko modua.
- b) Identifikatutako edo identifika daitezkeen pertsona fisikoei buruzko edozein informazio.
- c) Datu pertsonalen tratamendu oro, lortutako informazioa ezin bada ezein pertsonarekin lotu.
- d) Identifikatutako edo identifika daitezkeen pertsona juridikoei buruzko edozein informazio.

3.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEAREN ARABERA, ZEIN EZ DA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOAN EUSKAL HERRI-AGINTEEN JARDUKETA GIDATU ETA BIDERATUKO DUEN PRINTZIPIO OROKORRA?

- a) Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- b) Aniztasuna eta ezberdintasuna errespetatzea.
- c) Tratu berdintasuna.
- d) Sexuaren araberako rola eta estereotipoak desagerraraztea.

4.- EPIDEMIOLOGIAREN HASTAPENETAN DAGO:

- a) Infekzio-gaixotasunen ikerketa.
- b) Gaixotasun kronikoen ikerketa.
- c) Gaixotasun kardiobaskularren ikerketa.
- d) Gaixotasun degeneratiboaren ikerketa.

5.- EPIDEMIOLOGIAREN OINARRIZKO XEDE ETA HELBURUAK DIRA:

- a) Komunitatearen osasunean eragina duten gertakari biologikoak bakarrik.
- b) Komunitatearen osasunean eragina duten gertakari sozialak bakarrik.
- c) Komunitatearen osasunean eragina duten gertakari biologiko eta sozial guztiak.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez.

6.- GIZAKI OSASUNTSUEK ALDI JAKIN BATEAN ZEHAR GAIXOTASUN BAT GARATZEKO DUTEN PROBABILITATEA ADIERAZTEKO, HONAKO HAU ERABILTZEN DA:

- a) Prebalentzia.
- b) Intzidentzia metatua.
- c) Intzidentzia-tasa.
- d) Arrisku erlatiboa.

7.- USTE DA BIRIKETAKO MINBIZIEN EHUNEKO LAUROGEITA HAMAR TABAKOAREN ONDORIO DIRELA. NOLAKOA DA BAITEZTAPEN HORI?

- a) Intzidentziakoa.
- b) Frakzio egozgarria populazioan.
- c) Arrisku diferentzia.
- d) Aurreko erantzunetako bakar bat ere ez.

8.- BI BIZTANLE-MULTZOREN ARTEAN GAIXOTASUN BATEN MAIZTASUNEAN ADINAREKIN ZERIKUSIA EZ DUTEN ALDEAK DAUDEN JAKITEKO, JARRAIAN ZEHAZTUTAKO TASA GUZTIAK, BAT IZAN EZIK, ALDERATU DITZAKEGU. ZEIN DA TASA HORI?

- a) Zuzenean doitutako tasak.
- b) Adin bakoitzeko tasa espezifikoak.
- c) Tasa gordinak.
- d) Europako populazioari estandarizatutako tasak.

9.- GERTAKARI BATEN ODDS-A 9:1 BADA, ZEIN DA PROBABILITATEA?

- a) 10
- b) 0,1
- c) 0,9
- d) 90

10.- JARRAIAN ADIERAZITAKO AUKEREN ARTEAN, ADIERAZI ZEIN EZ DEN IRIZPIDEA ASOZIAZIO BAT KAUSALA DELA FROGATZEKO:

- a) Estatistikoki esanguratsua izatea.
- b) Asoziazioaren kontsistentzia.
- c) Arrisku erlatibo altua.
- d) Dosia-erantzuna gradientea.

11.- HURRENGO AUKEREN ARTEAN, ADIERAZI CHI KARRATUAREN EMAITZA ESANGURATSU BATEKIN BATERAGARRIA DEN ODDS RATIOAREN KONFIANTZA-TARTEA.

- a) 0,6 - 0,9
- b) 0,1 - 1,9
- c) 0,9 - 1,1
- d) 0,1 - 1,9

12.- AZTERLAN BATEAN ANTZEMANDAKO ASOZIAZIO EPIDEMIOLOGIKOAREN MAGNITUDEARI, NOLA DEITZEN ZAIO?

- a) Kontsistentzia.
- b) Gradientea
- c) Plausibilitatea.
- d) Indarra.

13.- AZTERLAN BATEN ARABERA, ARIKETA EGITEN DUTEN PERTSONEK 0,20KO ARRISKU ERLATIBOA (AE) DUTE IKTUSA PREBENITZEKO ARIKETARIK EGITEN EZ DUTENEKIN ALDERATUTA. HONAKO HAU DA ARRISKU ERLATIBO HORREN INTERPRETAZIO ZUZENA:

- a) Ariketa egiten dutenek, ariketa fisikoa ohikotasunez egiten ez dutenek baino %20 arrisku gutxiago dute iktusa izateko.
- b) Ariketa egiten ez dutenek, ariketa fisikoa egiten dutenek baino %20 arrisku gutxiago dute iktusa izateko.
- c) Ariketa egiten dutenek, ariketa fisikoa egiten ez dutenek baino %80 arrisku gutxiago dute iktusa izateko.
- d) Ariketa egiten ez dutenek, ariketa fisikoa egiten dutenek baino %80 arrisku gutxiago dute iktusa izateko.

14.- AZTERLAN BATEAN NAHASMEN FAKTORE BAT KONTROLATZEKO, HONAKO HAU DA ERABIL DAITEKEEN ANALISI-TEKNIKA:

- a) Chi karratuaren analisia.
- b) Txandakako diseinua.
- c) Bariantzaren analisia (ANOVA).
- d) Analisi geruzatua.

15.- HURRENGO KAUSA GUZTIEK ERAGIN DEZAKETE ASOZIAZIO BAT (OR BERE EGIAZKO BALIOA BAINO HANDIAGOA IZATEA AZTERKETA BATEAN. DENEK, BATEK IZAN EZIK. ADIERAZI ZEIN DEN.

- a) Hirugarren aldagarri bat, esposizioa eta gaixotasuna, biak, sortzen dituena.
- b) Eraginpean egon direnetan, eraginpean egon ez direnetan baino diagnostikatzeko gaitasun handiagoa.
- c) Eragin-estatusari buruzko informazio-kalitate txarra, ausazko errorea dakarrena.
- d) Gaixorik eta eraginpean ez daudenak gutxiago parte hartzea azterketan.

16.- GAIXOTASUN BATEN AZTERKETA PROSPEKTIBOAN, HONAKO HAUEK OSATZEN DUTE HAUTATUTAKO KOHORTEA:

- a) Gaixotasuna duten pertsonak.
- b) Gaixotasuna ez duten pertsonak.
- c) Aztertutako eragilea duten pertsonak.
- d) Aztertutako eragilea ez duten pertsonak.

17.- ADIERAZI KOHORTE-AZTERLAN BATEN ETA KASU- ETA KONTROL-AZTERLAN BATEN ARTEKO EZBERDINTASUN GARRANTZITSUENA:

- a) Kohorte-azterlana etorkizunari begirakoa da eta kasu- eta kontrol-azterlana atzera begirakoa.
- b) Kasu- eta kontrol-azterlanak hainbat emaitza ebaluatu dezake, kohorte-azterlan batek, ordea, esposizio bat baino gehiago.
- c) Errazagoa da intzidentzia datuak ebaluatzea kasu- eta kontrol-azterlan batean kohorte-azterlan batean baino.
- d) Hasieran, kohorte-azterlan batean esposizioaren arabera sailkatzen dira subjektuak, eta kasu- eta kontrol-azterlan batean, ordea, emaitzaren arabera.

18.- KRISI PSIKOTIKOEN AGERRALDIEN ETA FAMILIA AURREKARIEN ARTEKO LOTURA AZTERTU NAHI DUEN AZTERLAN BATEAN OSPITALE-KONTROLAK ERABILTZEAK, HONAKO HELBURU HAU DAUKA:

- a) Oroimen-alborapenak ezabatzea.
- b) Azterlanaren zehaztasuna areagotzea.
- c) Aztertutako kasuen kopurua areagotzea.
- d) Ausazko errorea gutxitzea.

19.- AZTERLAN EKOLOGIKOEN EZAUGARRIA:

- a) Ingurumen mailako eraginak aztertzen dituzte.
- b) Taldeen konparazioan daude oinarrituta, ez norbanakoen konparazioan.
- c) Azterlan "garbiak" dira, hau da, alborapenik gabeak.
- d) Horiekin lortutako ebidentzia zientifikoa oso altua da.

20.- SAIAKUNTZA KLINIKO BATEN ONDORIOEN BALIOZKOTASUNERAKO, ZEIN DA HURRENGO FAKTOREETATIK GARRANTZITSUENA? :

- a) Pertsona kopuru bera tratamendu eta plazebo taldeetan.
- b) Parte-hartzaileen ausazkotasuna.
- c) Gaixotasunaren eragin-tasa nahiko handia aztertutako populazioan.
- d) Adin guztietako pertsonak sartzea talde batean zein bestean.

21.- BAHEKETA-TEST BATEAN (SCREENING), NOLA ESATEN ZAIO POSITIBO EMATEN DUTEN GUZTIEN ARTEAN KASUAK BEREIZTEKO AHALMENARI?

- a) Predikzio-balio positiboa.
- b) Predikzio-balio negatiboa.
- c) Predikzio-balio globala.
- d) Sentsibilitatea.

22.- ZER DA TEST BATEN SENTSIBILITATEA?

- a) Gaixotasunaren aurrean positiboki erreakzionatzeko gaitasuna.
- b) Erreakziorik eza gaixotasunik ez badago.
- c) Objektibotasuna.
- d) Onargarritasuna.

23.- BIHOTZ-GAIXOTASUNEKO SCREENINGA EGITEN ZAIE BIHOTZ-GAIXOTASUNEN %10EKO PREBALENTZIA DUEN POPULAZIO BATEKO 2000 HAURRI. ERABILITAKO TESTATEN SENTSIBILITATEA ETA ESPEZIFIKOTASUNA %80 DA. ADIERAZI ERANTZUN ZUZENA:

- a) Testak 520 haur identifikatuko ditu positibo gisa.
- b) Predikzio-balio positiboa %44,4 da.
- c) Predikzio-balio negatiboa %30,8 da.
- d) Testak 1.440 haur identifikatuko ditu negatibo gisa.

24.- ADIERAZI BEHARREKO GAIXOTASUNEN (ABG) SISTEMAN, ADIERAZPENA BETI EGINGO DA:

- a) Kasua klinikoki berretsi ondoren.
- b) Kasua laborategiak berretsi ondoren.
- c) Susmo klinikoa dagoenean.
- d) Dagokion osasun zentroko koordinatzailearen oniritziarekin.

25.- INFORMAZIO MIKROBIOLOGIKOAREN SISTEMARI JAKINARAZIKO ZAIZKIO:

- a) Egiaztatutako infekzio gertatu berrien kasuak.
- b) Infekzio gertatu berrien kasu susmagarriak eta egiaztatutakoak.
- c) Infekzio gertatu berrien kasu susmagarriak.
- d) Egiaztatutako infekzio gertatu berrien eta zaharren kasuak.

26.- EUSKADIKO OSPITALEETAKO ALTEN GUTXIENENKO OINARRIZKO DATU MULTZOAREN (GODM) ERREGISTROA:

- a) Datu-multzo bat da, datu administratiboak zein klinikoak, Euskadiko ospitale publikoetan ospitaleratutako pazienteei buruzkoak.
- b) Bildutako datu klinikoen jatorria Euskadiko ospitale publiko eta pribatu guztietako alta-txostenak dira.
- c) Nahitaez bete beharrekoak dira historia klinikoaren zenbakia, jaiotza-data, NANA eta sexua.
- d) b eta c erantzun zuzenak dira.

27.- HONAKO HAUEK DIRA, GAUR EGUN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HERIOTZEN KAUSA-MULTZO NAGUSIAK:

- a) Gaixotasun kardiobaskularrak eta gaixotasun neurologikoak.
- b) Gaixotasun neurologikoak eta gaixotasun neoplasikoak.
- c) Gaixotasun neoplasikoak eta arnasbideetako gaixotasunak.
- d) Gaixotasun kardiobaskularrak eta gaixotasun neoplasikoak.

28.- OME-REN ARABERA, BEREZIKI ZAINTEKO GAIXOTASUNAK DIRA:

- a) Aktinomikosia.
- b) Legenarra.
- c) Poliomielitisa.
- d) Sukar tifoidea.

29.- INDIZE EPIDEMIKOA HONELA LORTZEN DA: ASTE JAKIN BATEAN AGERTUTAKO KASUAK ...

- a) Aurreko bost-urtekoaren medianarekin zatituta.
- b) Gaitzikorren kopuruarekin zatituta.
- c) Infektatzaileen kopuruarekin zatituta.
- d) Kutsagarritasun-tasarekin zatituta.

30.- AGERRALDI EPIDEMIKOA:

- a) Ez du irauten aste bete baino gehiago.
- b) Ez da halakotzat jotzen 72 ordu baino gehiago irauten badu.
- c) Desagertu egin daiteke gaitzikorrak desagertuz gero.
- d) Osasun agintariek esku hartuta baino ez da desagertzen.

31.- BERROGEIALDEA EZARTZEN ZAIE:

- a) Gaixo dauden pertsonei.
- b) Gaixorik ez dauden pertsonei.
- c) Gaixo dauden pertsonei, gaixotasunaren aldi kliniko guztian zehar.
- d) Gaixo dauden pertsonei, bakterioen hazkunde logaritmiko esponentzialak iraun bitartean.

32.- GAIXOTASUN TRANSMITIGARRI BATEN AGENTE ETIOLOGIKOA. INFECTIBITATEA:

- a) Hedatzeko gaitasunari esaten zaio.
- b) Infektatuta daudenengan gaixotasunak eragiteko daukan gaitasunari esaten zaio.
- c) Ehunetan sartu eta ugaltzeko duen gaitasunari esaten zaio.
- d) Agente eragilearen patogenizitate-mailari esaten zaio.

33.- GAIXOTASUN TRANSMITIGARRI BATEN AGENTE ETIOLOGIKOA. PATOGENIZITATEA:

- a) Hedatzeko gaitasunari esaten zaio.
- b) Infektatuta daudenengan gaixotasunak eragiteko daukan gaitasunari esaten zaio.
- c) Sartu eta ugaltzeko gaitasunari esaten zaio.
- d) Aurreko erantzun bakar bat ere ez da zuzena.

34.- GAIXOTASUN TRANSMITIGARRIA. FOMITEEN BIDEZKO TRANSMISIO MEKANISMOA:

- a) Zeharkakoa da.
- b) Zuzena da, bakterio forma askeen bidez.
- c) Zuzena da, bakterio forma atipikoen bidez.
- d) Zuzena da, anbulategietako gaixotasun transmitigarrietan.

35.- URTE-SASOIKO GRIPE EPIDEMIAK:

- a) Abendua eta otsaila bitartean baino ez dira ematen ipar hemisferioan zein hego hemisferioan.
- b) A motako birusek sortzen dituzte beti, sekula ez B eta C motakoek.
- c) Nagusitzen den birusa A edo B motakoa izan daiteke, baina ez C motakoa.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

36.- AIRE BIDEZ KUTSATZEN DIREN GAIXOTASUNEKIN LOTUTAKO HURRENGO MIKORROGANISMOETATIK BATEK BAKARRIK EZ DAUKA GORDAILUA. ADIERAZI ZEIN DEN.

- a) Q sukarra.
- b) *Legionella*.
- c) *Neisseria meningitidis*.
- d) Hegazti gripea.

37.- BEHAR BEZALA TRATATUTAKO BIRIKETAKO TUBERKULOSIA DUTEN GAIXO GEHIENETAN, TUBERKULOSIAK KUTSAKORRA IZATEARI UZTEN DIO:

- a) Tratamendua hasi eta aste betera.
- b) Tratamendua hasi eta bi astera.
- c) Tratamendua hasi eta lau astera.
- d) Zortzi aste geroago.

38.- ZERK ERAGITEN DU PONTIAC SUKARRA?

- a) *Francisella tularensisek.*
- b) *Campylobacter yeyunik.*
- c) *Helicobacter pylorik.*
- d) *Legionella pneumophilak.*

39.- LEGIONELOSI KASU GEHIENAK HONEKIN DAUDE LOTUTA:

- a) Digestio-bidezko kutsadurarekin, ur kutsatuagatik.
- b) Digestio-bidezko kutsadurarekin, elikagaiengatik.
- c) Odol bidezko kutsadurarekin, zauriengatik.
- d) Aire bidezko transmisioarekin, aire girotuagatik.

40.- XX. MENDETIK GAUR EGUN ARTE, GIZAKIEN ARTEAN IRAUN DUEN INFEKZIOAREKIN LOTU DIREN GRIPE AZPIMOTAK, HONAKO HAUEK DIRA:

- a) H1N1, H7N7 eta H3N2.
- b) H1N1, H2N2 eta H3N2.
- c) H2N2, H3N2 eta H5N1.
- d) H3N2, H7N7 eta H5N1.

41.- PARALISI FLAZIDO AKUTUAREN KOADRO BATEN AURREAN EGINKARIEN 2 LAGINETAN EZ BADA POLIOAREN BIRUSA ISOLATZEN, POLIOMIELITISA DEKLARATZE ALDERA, NOLA SAILKATZEN DA KASU HORI?

- a) Susmagarria.
- b) Bateragarria.
- c) Egiaztatua.
- d) Baztertua.

42.- KUKUTXEZTUL KASUEN AURREAN EGIN BEHARREKO ESKU-HARTZEEI DAGOKIONEZ, ONDORENGO BAIEZTAPENETATIK BAT EZ DA ZUZENA ADIERAZI ZEIN DEN.

- a) Sintomak ageri eta gero, transmitigarritasun-aldia 21 egunekoa da.
- b) Eztul paroxistikoa ageri eta gero, transmitigarritasun-aldia 14 egunekoa da.
- c) Antibiotiko bidezko 5 eguneko tratamendu eraginkorraren ondoren, ez dago transmitigarritasunik.
- d) Hurbilekoengan sintomarik agertzen ote den zaindu egin behar da 7 egunez, hori baita gaixotasunaren gehieneko inkubazio-aldia.

43.- KUKUTXEZTULA KONTROLATZEKO NEURRIEN ARTEAN, HONAKO HAU EGIA DA:

- a) Arnas aparatuko isolamendua gomendatzen da, baina bakarrik egiaztatutako kasuena, ez balizkoena edo susmagarriena.
- b) Txertaketak eragina izan dezake gaixotasunaren bilakaeran, nahiz eta berandu jarri txertoa.
- c) Antibiotiko bidezko tratamendu espezifikoa lehenbailehen eman behar da.
- d) Egiaztatutako kasu batekin harremana izan dutenen bilaketa aktiboa ez da gomendatzen.

44.- LISTERIA MONOCYTOGENESI DAGOKIONEZ, ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA.

- a) Ez dira jaso infekzio nosokomialeko kasuak.
- b) Ez da hozte-tenperaturetan hazten.
- c) Batez beste, hiru astekoa izaten da inkubazio-aldia.
- d) Epidemiologikoki, pasteurizatutako produktuekin lotzen da.

45.- KUTSATUTAKO JANARIETAN SALMONELLAK SUNTSITZEKO NEURRIRIK EGOKIENA, ZEIN DA?

- a) 4 gradu zentigradutan hoztea.
- b) Beroa.
- c) Nitrito sodikoa eranstea.
- d) Aurreko erantzunetatik edozeinek balio du.

46.- GASTROENTERITIS SALMONELOSIKOA ANTIBIBIOTIKO BIDEZ TRATATZEKO, ZEIN ERABILIKO DA?

- a) Doxiziklina.
- b) Amoxizilina-klabulanikoa.
- c) Kloramfenikola.
- d) Ez da antibiotiko bidezko tratamendurik egin behar.

47.- LISTERIOSIARI DAGOKIONEZ, ADIERAZI ZUZENA EZ DEN ERANTZUNA.

- a) Listeria monocytogenes behe-tenperaturetan hazten da, baina hozte-tenperaturaren azpitik ere.
- b) Kutsatzeko modu nagusienetarikoa higienizatu gabeko esnearen eta gaztaren bidez da.
- c) Kutsatzeko beste bide bat da amak seme-alabak kutsatzea.
- d) Sukar sintoma akutu larriekin agertu ohi da, baina pertsona osasuntsuen kasuan ere.

48.- AMORRERIARI DAGOKIONEZ, ADIERAZI ZEIN DEN AUKERARIK ZUZENENA.

- a) Posible da gizakiengan agertzea kasu bakanak txakurraren edo saguzarren hozkadagatik Ceutan eta Melillan.
- b) Inkubazio-aldia hiru eta zortzi aste bitartekoa da, orokorrean, baina bi egun eta 7 urte bitartekoa izan daiteke.
- c) Amorreria bereziki zaintzeko gaixotasuna da Osasunaren Munduko Erakundearen arabera.
- d) Aurreko erantzun guztiak egiazkoak dira.

49.- Q SUKARRAREN EPIDEMIOLOGIARI DAGOKIONEZ, ADIERAZI ZUZENA EZ DEN ERANTZUNA.

- a) Aire bidezko transmisioa da eraginkorrena. 5km-ko distantziara ere iris daiteke.
- b) Ardi-, behi- eta ahuntz-aziendak dira haren gordailu nagusiak.
- c) EAEn sarri gertatzen dira kasu isolatuak, baina oso gutxitan agerraldiak.
- d) Inkubazio-aldia 2-3 astekoa da batez beste.

50.- PALUDISMOARI DAGOKIONEZ, HONAKO HAU EZ DA EGIA:

- a) Anofeles eltxoa da giza-paludismoaren gordailu garrantzitsu bakarra.
- b) Transmisio-iturri nagusietako bat da anofelia eltxo emearen hozkada kutsatzailea.
- c) Espainiako gaur egungo egoera "paludismorik gabeko anofelismo" gisa definitzen da.
- d) Paludismoak haurdunaldian emakumearen heriotza-arriskua areagotzen du.

51.- PALUDISMO EDO MALARIARI DAGOKIONEZ, ADIERAZI ZUZENA EZ DEN ERANTZUNA.

- a) Gizakia da giza-paludismoaren gordailu garrantzitsu bakarra.
- b) Paludismoa endemikoa den lurralde batean 6 hilabete baino gehiago egon diren pertsonak ezingo dira odol-emaile izan 3 urtez.
- c) Gaur egun, estatu espaniarrean ez dago Anopheles eltxoaren espezierik, non eltxo emeak plasmodiuma kutsatzen duen.
- d) Plasmodium protozoak eragindako gaixotasuna da.

52.- ZEIN DA IHESAREN TRANSMISIO-BIDE OHIKOENA MUNDU MAILAN?

- a) Transmisio-bide homosexuala.
- b) Bide parenteraletik drogak hartzea.
- c) Transmisio-bide heterosexuala.
- d) Transmisio bertikala.

53.- ADIERAZI EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEONATOLOGIAKO OSASUN ARLOKO LANGILEENTZAT GAUR EGUN NAHITAEZKOAK DIREN TXERTOAK:

- a) Denak.
- b) Bat ere ez.
- c) Gripearena eta B hepatitisarena.
- d) Elgorriarena eta tuberkulosiarena.

54.- TXERTAKETA EGUTEGIAN (GAUR EGUN) AHOLKATUTAKO POLIOMIELITISAREN AURKAKO TXERTOAK, HONAKOAK DA:

- a) Inaktibatua.
- b) Birus biziakikoa.
- c) Bizia.
- d) Sekuentziala: inaktibatua dosi 2 eta bizia hurrengoak.

55.- B HEPATITISAREN AURKAKO TXERTOAK. JARRAIAN ZEHAZTUTAKO EGOERETATIK ZEINETAN EZ DA GOMENDATZEN B HEPATITISAREN AURKAKO TXERTOAK?

- a) Sintomarik ez duen B hepatitisaren birusaren eramaile baten emaztea.
- b) Birusaren eramailea den pertsona baten material kutsatuarekin istripuz ziztatu ondoren.
- c) Gizonezko homosexuala, anti-HB-c antigorputzaren analisiak positibo eman badu.
- d) Dialisian dauden pertsonak.

56.- EMAKUNE HAURDUNAK. TXERTOAK. ONDORENGO TXERTOETATIK, ADIERAZI ZEIN DAGOEN KONTRAINDIKATUA?

- a) Tetanosaren aurkakoa.
- b) Difteriaren aurkakoa.
- c) Gripearearen aurkakoa.
- d) Errubeolaren aurkakoa.

57.- GRIPEAREN AURKAKO TXERTOARI DAGOKIONEZ, HONAKO HAU EGIA DA:

- a) Txertoaren eraginkortasuna txerto-anduien eta zirkulatzen ari diren anduien arteko loturaren araberakoa da, baita hartzailearen adinaren eta osasun egoeraren araberakoa ere.
- b) Glutenarekiko hipersentsibilitatea duten pertsonei ez zaie eman behar.
- c) Hegaztitegietako langileentzat ez da gomendatzen.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

58.- JARRAIAN ZEHAZTUTAKO FAKTOREETATIK, ZEINEK DU BABES-ERAGINA BULARREKO MINBIZIAN?

- a) Lehen koitoa adin goiztiarrean izateak.
- b) Obesitateak.
- c) Multiparotasuna.
- d) Ahotik hartzeko antisorgailuak hartu izanak.

59.- KOLON ETA ONDESTEKO MINBIZIAREN POPULAZIO-SCREENINGA EAEN. ADIERAZI ERANTZUN ZUZENA:

- a) Ez dago gomendatua populazio mailan, kolon eta ondesteko minbiziaren familia-aurrekariak dituztenengan bakarrik.
- b) Sigmoidoskopia bidez egiten zaie 50 eta 69 urte bitarteko herritarrei, bost urterik behin.
- c) Eginkarietan ezkutuan dagoen odolaren analisi bidez egiten zaie 50 eta 69 urte bitarteko herritarrei, bi urterik behin.
- d) Kolonoskopia bidez egiten zaie 50 eta 69 urte bitarteko herritarrei, bost urterik behin.

60.- BULARREKO MINBIZIAREN BAHETZEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN, NORI DAGO ZUZENDUA?

- a) 50 eta 64 urte bitarteko emakumeei.
- b) 50 eta 64 urte bitarteko emakumeei eta bularreko minbiziaren aurrekariren bat duten 40 eta 49 urte bitarteko emakumeei.
- c) 50 eta 69 urte bitarteko emakumeei.
- d) 50 eta 69 urte bitarteko emakumeei eta bularreko minbiziaren lehen mailako aurrekariren bat duten 40 eta 49 urte bitarteko emakumeei.

61.- GAUR EGUN, HONAKO POPULAZIO BAHETZE HAUEK EGITEN DIRA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN:

- a) Bularreko eta kolon eta ondesteko minbiziarenak.
- b) Bularreko, kolon eta ondesteko eta prostatako minbiziarenak.
- c) Bularreko, kolon eta ondesteko eta cervix-eko minbiziarenak.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

62.- GAIKOTASUN KARDIOBASKULARREN BARRUAN, ZEIN DA HERIOTZA-KAUSA NAGUSIA 45 URTETIK GORAKO PERTSONENGAN?

- a) Aorta-disekzioa.
- b) Balbulopatia periferikoak.
- c) Kardiopatia iskemikoa.
- d) Miokardiopatia dilatatua.

63.- JARRAIAN ADIERAZITAKOETATIK, ZEIN EZ DA ATEROESKLEROSIAREN ARRISKU-FAKTOREA?

- a) Disbetalipoproteinemia.
- b) Gizonezkoa izatea.
- c) Garuneko hodietako gaixotasunaren aurrekari pertsonalak.
- d) 55 mgr/dl-tik gorako HDL-kolesterola plasman.

64.- GAUR EGUN, EA EKO POPULAZIOA OSORIK KONTUAN HARTUTA, GAIKOTASUN KARDIOBASKULARRENGATIKO HERIOTZAK DIRA:

- a) Lehenengo heriotza-arrazoia.
- b) Bigarren heriotza-arrazoia.
- c) Hirugarren heriotza-arrazoia.
- d) Laugarren heriotza-arrazoia.

65.- GAIKOTASUN KARDIOBASKULARREN GAIKOTASUNEI DAGOKIONEZ, HONAKO HAU EZ DA EGIA:

- a) Kardiopatia iskemikoa da herrialde garatuetako gizonezkoen heriotza-arrazoi nagusia.
- b) Miokardio-infartuek eragindako heriotza-tasa handiagoa da gizonengan emakumeengan baino.
- c) Alkohol-kontsumoa arrisku kardiobaskularrerako faktore argia da.
- d) Gaixotasun kardiobaskularrek eragindako heriotza-arrisku handia dute diabetikoek.

66.- DIABETES MELLITUSEN AURKAKO BAHETZEA EGITEA AHOLKATUTA LEGOKE HURRENGO EGOERETAN, BATEAN IZAN EZIK, ADIERAZI ZEINETAN:

- a) 40 urtetik gorako helduen kasuan.
- b) Haurdunaldiko diabetesaren historia duten emakumeen kasuan.
- c) Haurdunaldian.
- d) Obesitate morbidoaren kasuan.

67.- ATEROESKLEROSIA PAZIENTE DIABETIKOETAN. HURRENGO BAIEZTAPENETATIK, BAT EZ DA EGIAZKOA. ADIERAZI ZEIN.

- a) Gehiago ematen da diabetikoetan populazio orokorrean baino.
- b) Gehiago ematen da emakumeetan.
- c) Gizonezkoetan eta emakumeetan berdina ematen da.
- d) Goizago ematen da diabetikoetan populazio orokorrean baino.

68.- OSASUN-ZERBITZU ESKURAGARRIAK, OSASUN ONAZ GOZATZEKO ETA OSASUN-EKITATEA LORTZEKO EZINBESTEKOAK DIRENAK, EZ LUKETE:

- a) Ekitatearen, erikortasunaren prebentzioaren eta osasun-sustapenaren printzipioetan oinarrituta egon behar.
- b) Estaldura unibertsala eduki behar.
- c) Osasunaren lehen mailako arretan zentratuta egon behar.
- d) Kopagoan oinarrituta egon behar, osasun egoeraren eta sistemari eragiten dion kargaren arabera.

69.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2013KO OSASUN-INKESTAREN ARABERA (EAEIOI 2013), EAEN TABAKISMOAREN PREBALENTZIARI DAGOKIONEZ:

- a) Gizonezkoetan %25 zen eta emakumeetan %18, 2013an.
- b) Jaitsi egin da sexu bietan, baina gehiago emakumeetan.
- c) Jaitsiera handiena 45-64 adin-taldekoetan izan zen.
- d) 15 eta 24 urte bitarteko gazteetan izan da prebalentzia.

70.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2013KO OSASUN-INKESTAREN ARABERA (EAEIOI 2013), OBESITATEAREN PREBALENTZIARI DAGOKIONEZ, HONAKO HAU EZ DA EGIA:

- a) Handiagoa da emakumeetan gizonetan baino.
- b) Areagotu egiten da adinarekin.
- c) Handiagoa da klase soziala baxuagoa den heinean.
- d) Areagotu egin da azken hamarkadan sexu bietan.

ERRESERBAKO GALDERAK

R-71.- KAFE-KONTSUMOA ETA BEHAZUN-MINBIZIARI BURUZKO KASU- ETA KONTROL-AZTERLAN BATEAN, ZEIN ALDAGAI EZ DA ERABILI BEHAR PAREKATZEKO?

- a) Adina.
- b) Sexua.
- c) Kafe-mota (kafeinaduna - kafeinagabea).
- d) Etnia/arraza.

R-72.- ZAINZA EPIDEMIOLOGIKOKO SISTEMA AUSAZKO HAUTAKETAN ETA MEDIKUEN BORONDATEZKO PARTAIDETZAN BADAGO OINARRITUTA, ZER NOLAKO SISTEMA DA?

- a) Oinarrizkoa.
- b) Informazio mikrobiologikoko sistema.
- c) Jagolea.
- d) a, b edo c ez den beste bat.

R-73.- HERIOTZA-ZIURTAGIRIEN BITARTEZ KASU BERRIEN EHUNEKO ALTUA LORTZEAK, ZER ADIERAZTEN DU?

- a) Minbizia gaixotasun hilgarria dela.
- b) Informazio-iturri osagarria dela.
- c) Heriotza-ziurtagiri horiek informazio-iturri ona direla.
- d) Erregistroa kalitate gutxikoa dela.

R-74.- GAIXOTASUN MENINGOKOZIKOA DUEN 16 URTEKO GAZTE BATEN HURRENGO KONTAKTUETATIK, ADIERAZI ZEINEK EZ DUEN JASO BEHAR KIMIOPROFILAXIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN EZARRITAKO PROTOKOLOAREN ARABERA?

- a) 13 urteko anaiak, duela bost egun ikasketa-bidaian joan zena.
- b) Etxean bizi den 65 urteko amonak.
- c) Institutuko ikasgela bereko ikaskide-taldeak.
- d) Larrialdietan bizkortze-maniobrak egin zizkion medikuak.

R-75.- NEISSERIA MENINGITIDISAREN INFEKZIO-ITURRI NAGUSIA, HONAKO HAU DA:

- a) Gaixoak.
- b) Eramaile osasuntsuak.
- c) Aireak.
- d) Karraskariak.

R-76.- ELGORRIARI BURUZKO HURRENGO BAIEZTAPENETATIK BAT EZ DA ZUZENA. ADIERAZI ZEIN.

- a) Elgorria gaixotasun transmitigarri kutsakorrenetakoa da.
- b) Exantema agertu arte ez da transmitigarria.
- c) Berez infektatu ondoren, uste da immunitateak bizi osoan irauten duela.
- d) Prebentzio-neurri eraginkorra txertoa da.

R-77.- A HEPATITISAREN KASUEN AURREAN EGIN BEHARREKO ESKUHARTZEEI DAGOKIONEZ, HURRENGO BAIEZTAPENETATIK BAT EZ DA ZUZENA. ADIERAZI ZEIN DEN.

- a) Inkubazio-aldia 28 egunekoa da batez beste.
- b) Infektibotasuna eta transmitigarritasuna goren-gorenak dira ikterizia izan eta aste betera.
- c) Uste da bizi osorako immunitatea eragiten duela gaixotasunak.
- d) Kasuak infektatzaileak dira ikterizia antzeman eta transaminasak igo aurretik.

R-78.- INDARREAN DAGOEN TXERTAKETA-EGUTEGIAN DIFTERIA ETA TETANOSAREN AURKAKO TXERTOAK GOMENDATZEN DA 2, 4 ETA 6 HILABETEREKIN, ETA, HORREZ GAIN,

- a) 13 urterekin.
- b) 18 hilabete, 6 urte eta 16 urterekin.
- c) 18 hilabete eta 6 urterekin.
- d) 18 hilabeterekin.

R-79.- PROSTATAKO MINBIZIAREN POPULAZIO-SCREENINGA EAEN. ADIERAZ EZAZU ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA.

- a) Ez da populazio-mailan gomendatzen.
- b) PSA testaren bidez egiten da 50 urtetik gorako gizonetan, urtean behin.
- c) PSA testaren bidez egiten da 60 urtetik gorako gizonetan, bi urterik behin.
- d) Ondeste ukipenaren bidez egiten da 50 urtetik gorako gizonetan, urtean behin.

R-80.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2013KO OSASUN-INKESTAREN ARABERA (EAEI 2013), ZENBAT ETA IKASKETA-MAILA BAXUAGOA, EZ DA EGIA:

- a) Handiagoa dela tabako-kontsumoaren prebalentzia.
- b) Handiagoa dela beste batzuk erretako tabakoaren eraginpean egotea.
- c) Handiagoa dela obesitatearen prebalentzia.
- d) Handiagoa dela alkoholaren kontsumoaren prebalentzia.

Bolsa de Trabajo Cuerpo Superior Facultativo

Escala Epidemiología

1^{er} ejercicio, parte teórica

Modelo A

28/02/2015

1.- CONTRA LAS DISPOSICIONES ADMINISTRATIVAS DE CARÁCTER GENERAL, INTERPONDREMOS:

- a) Recurso de alzada.
- b) Recurso de reposición.
- c) Recurso extraordinario de revisión.
- d) No cabe ningún recurso administrativo.

2.- SEGÚN LA LEY ORGANICA 15/1999 DE PROTECCION DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL SE ENTENDERA POR “DATOS DE CARÁCTER PERSONAL”:

- a) Todo conjunto organizado de datos, cualquiera que fuere la forma o modalidad de su creación, almacenamiento, organización y acceso.
- b) Cualquier información que concierne a personas físicas identificadas o identificables.
- c) Todo tratamiento de datos personales de modo que la información que se obtenga no pueda asociarse a ninguna persona.
- d) Cualquier información que concierne a personas jurídicas identificadas o identificables.

3.- SEGÚN LA LEY 4/ 2005, DE 18 DE FEBRERO, PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES, NO ES UN PRINCIPIO GENERAL QUE DEBE REGIR Y ORIENTAR LA ACTUACIÓN DE LOS PODERES PÚBLICOS VASCOS EN MATERIA DE IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES:

- a) La realización de estudios e investigaciones sobre la situación de mujeres y hombres.
- b) El respeto a la diversidad y a la diferencia.
- c) La igualdad de trato.
- d) La eliminación de roles y estereotipos en función del sexo.

4.- EL COMIENZO DE LA EPIDEMIOLOGÍA SE ESTABLECE CON EL ESTUDIO DE:

- a) Las enfermedades infecciosas.
- b) Las enfermedades crónicas.
- c) Las enfermedades cardiovasculares.
- d) Las enfermedades degenerativas.

5.- LA EPIDEMIOLOGÍA TIENE COMO FINES Y OBJETIVOS FUNDAMENTALES:

- a) Sólo los fenómenos biológicos que afectan a la salud de la comunidad.
- b) Sólo los fenómenos sociales que afectan a la salud de la comunidad.
- c) Todos los fenómenos biológicos y sociales que afectan la salud de la comunidad.
- d) Ninguno de ellos.

6.- PARA EXPRESAR LA PROBABILIDAD DE QUE INDIVIDUOS SANOS DESARROLLEN LA ENFERMEDAD A LO LARGO DE UN PERÍODO DETERMINADO, SE UTILIZA:

